


**AKORDIO BATERATUA, 2022ko EKAINAREN xx(e)koa, AZPko LAN KONTRATUDUNEN ETA AZPko FUNTZIONARIOEN NEGOZIAZIO MAHAIENA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LEPetako SARRERA PROZESUETAKO DEIALDIAK ARAUTZEKO GUTXIENEO IRIZPIDEEI BURUZKOA.**

**Hitzaurrea**


Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 23. artikulua (azaroaren 7ko 16/1997 legeak eragindako aldaketaren arabera) aurreikusten du administrazio publiko bakoitzean diren giza baliabideekin bete ezin litezkeen giza premiak, aurrekontu-esleipenik dutenak, lan-  
eskaintza publikoen bidez beteko direla. Halaber, esaten du lan eskaintza publikoan bertan adieraziko direla bete behar diren plaza hutsak, bai funtzionarioenak bai lan kontratadun langile finkoenak.

Bestetik, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen 59. artikulua eta hurrengoek adierazten dutenez, unibertsitateak, bere autonomiaz baliatuz, administrazio eta zerbitzuetako langileak aukeratuko ditu, funtzionarioak edo lan kontratadunak, bere lan eskaintza publikoaren arabera.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2019ko lan eskaintza publikoa onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.), lotua dagoena ekainaren 27ko 3/2017 Legean (2017. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrena) eta 6/2018 Legean (2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrena) aurreikusitako tasa gehigarriei, bai eta 2019. urteko birjartze tasari ere. Era berean, azken erabaki horren bidez barne promozioa onartu zen.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko lan eskaintza publikoa onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.), eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez, 2021. urteko lan eskaintza publikoa (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.).

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak zehazten du hirugarren prozesu bat egongo dela behin-behineko enplegua egonkortzeko, ekainaren 27ko 3/2017 Legeko 19.Bat.6 artikuluan eta uztailaren 3ko 6/2018 Legeko 19.Bat.9 artikuluan aipatutakoei gehituko zaiena (2017. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea eta 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea, hurrenez hurren). Hirugarren prozesu horretan sartuko dira administrazio publikoetako plaza estruktural guztiak baldin eta, aurrekontuetan diruz hornituta egonik, gutxien dela 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan behin-behinean eta etenik gabe beteta egon badira

  
CG-7-UN

  
GUT.

Horrez gain, lege horrek, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 61.6 eta 7. artikuluetan jasotakoarekin bat etorritz, merezimendu-lehiaketa bidezko deialdia egiteko aukera ematen du, salbuespenez eta behin bakarrik, honako baldintza hauek betetzen dituzten lanpostuetarako:

- 1) 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen behin-behinean eta etenik gabe beteta egon diren plaza hutsak (6. xedapen gehigarria).
- 2) Behin-behineko langileek 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik behin-behinean bete dituzten plaza hutsak (8. xedapen gehigarria).

Beraz, bi motatako prozesuak egingo dira:

- 1) Egonkortasunerako ezohiko prozesuak, aipatutako xedapen gehigarriak oinarri hartuta: merezimendu-lehiaketa bidezko hautapen prozesuak izango dira.
- 2) Ohiko prozesua gainontzeko plazetarako. Deialdiek oinarri izango dute:
  - a) lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistema karrerako funtzionario plazetara sartzeko.
  - b) merezimendu-lehiaketa bidezko hautaketa sistema lan kontratudun langile finko plazetara sartzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, 2022ko lan eskaintza publikoa onartu zen eta 2019, 2020 eta 2021eko LEPak aldatu ziren.

Bestalde, Gobernu Kontseiluaren erabaki horretan zehaztuta dago hautapen prozesuen kudeaketarako ekonomia eta eraginkortasun arazoak direla eta, 2022. urteko eskaintza publikoa prozesu bateratu bakar batean egin ahal izango dela, prozesu horretan sartuta 2019tik 2021era arteko lan eskaintza publikoak, deialdiaren zain daudenak, hartara, prozesu guztiak batera eginez.

Akordio honek, beraz, helburu dauka gutxieneko irizpideak zehaztea gerora arautzeko plantillan hutsik dauden plazak behin betiko betetzeko xedez deituko diren hautaketa prozesuetako oinarri orokorrak eta oinarri zehatzak, hain zuzen ere, 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetako lan eskaintza publikoetakoak; beti ere, sindikatuen ordezkariekin negoziatuta.

## AKORDIOA

### I) Epaimahaiak: Izendapenak eta osaera

UPV/EHUko gerenteak izendatuko ditu epaimahaietako kideak, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileak, gehien bat.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko oreka izango da kontuan epaimahaia osatzeko, eta kideek ezagutza zabala izango dute plazaren arlo profesionalean eta prestakuntza egokia epaimahaiko kideek bete behar dituzten zereginetarako.

  
67-262



## II) Hautaketa prozesuak

Deialdietan parte hartzeko bete beharreko baldintzak ezin izango dira izan, inolaz ere, administrazio honetakoak ez direnen parte hartzea mugatzeko bide. Izan ere, lanpostua behar bezala betetzeko gai izan arren hautagaiek ezin badituzte bete, oro har, baldintzak, deialdia ezeztatzeko bide izan daiteke. Horrela egin ezean, prozedura mugaturako deialdia izango litzateke berez, eta mota honetako prozeduretarako deialdiei buruz konstituzio jurisprudentzian ezarritakoarekin kontra egitea izango litzateke.

Beraz, baldintzak betetzen dituen edonork har dezake parte deialdian.

Hala ere, UPV/EHUko karrerako funtzionarioek eta lan kontratudun finkoek ezin izango dute parte hartu eskala edo kategoria bereko hautaketa prozesuetan.

## III) Hautaketa sistemak

### III.1.- Hautaketarako sistema motak. Izenak

1.- Enplegua egonkortzeko ezohiko prozesua, abenduaren 28ko 20/2021 Legeko seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien babesean: merezimendu-lehiaketa bidezko hautaketa prozesua.

2.- Ohiko prozesua:

2.1.- Merezimendu-lehiaketa bidezko hautaketa sistema, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan sartu ez diren lan kontratudunen plaza hutsetarako.

2.2.- Lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistema gainontzeko plazetarako, hau da:

- 20/2021 Legeko 2. artikulukoak, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan sartu ez direnak
- erreposizio tasakoak
- Barne promozioak.

Lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistemak oinarri izango du 2006ko azaroaren 30eko akordioa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legeko laugarren xedapen iragankorrek ezartzeari buruzkoa; izan ere, horren bidez, aukera dago oposizio fasean lor daitekeen puntuazioren %45era arte lortzea lehiaketa fasean UPV/EHUn emandako zerbitzuen bidez, eta, bestalde, zerbitzuak prestatzen jarraitzeko aukera bermatuta dago xedapenean bertan zehaztutakoari jarraikiz.

### III. 2.- Hautaketa sistemak. Garapena

Kontuan hartuta abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta 6. eta 8. xedapen gehigarrietan zehaztutako egonkortze prozesuaren ezaugarriak, kasuan kasuko eskala edo kategoria eta espezialitateko esperientzia hartuko da kontuan gehienbat; beraz, eskala edo kategoria berean emandako

zerbitzuak neurri handiagoan balioesteko aukera emango duen graduazio bat egon beharko da, eta emandako zerbitzutzat hartuko dira bitarteko funtzionarioaren legezko izendapenean edo aldi baterako lan kontratudunaren lan kontratuan adierazitako eta egiaztatutako zerbitzuak. Zerbitzu eginkizunetan edo eginkizunen aldi baterako esleipenaren bidez emandako aldietan, aldi horri dagokion izendapenean edo kontratuan ageri den lanpostuari dagozkion zerbitzuak baloratuko dira.

### A) Merezimendu-lehiaketa bidezko hautaketa sistema

Hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira: merezimendu bakoitzari ondorengo baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituko zaizkio, eta gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

#### A.1.- Merezimenduen baremoa:

Merezimenduen baremoan kontuan hartuko dira:

- Merezimendu profesionalak
- Merezimendu akademikoak

**Merezimendu profesionalak:** administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, eskariak aurkezteko azken egunera arte. Gehienez ere, 8 puntu.

Atal honetan, irizpide hauen arabera emango dira puntuak:

- a) Deialdia egin duen administrazioa parekoa eta emandako zerbitzuak pareko izateagatik: 0,048 puntu lan egindako hilabete osoko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean bitarteko funtzionario legez deialdiko eskala berean, edo aldi baterako lan kontratudun legez talde, kategoria eta espezialitate berean.
- b) Deialdia egin duen administrazioaren antzekoak izateagatik eta emandako zerbitzuak parekoak izateagatik: 0,024 puntu lan egindako hilabete osoko, beste edozein unibertsitate publikotan bitarteko funtzionario legez deialdiko eskalaren parekoan, edo aldi baterako lan kontratudun legez pareko kategoria eta espezialitatean.
- c) Emandako zerbitzuak parekoak izateagatik: 0,016 puntu lan egindako hilabete osoko, beste edozein administrazio publikotan bitarteko funtzionario legez deialdiko eskalaren parekoan, edo aldi baterako lan kontratudun legez pareko kategoria eta espezialitatean.
- d) Deialdia egin duen administrazioaren pareko izateagatik: 0,012 puntu lan egindako hilabete osoko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean bitarteko funtzionario legez deialdikoarekin bat ez datorren eskalan, edo aldi baterako lan kontratudun legez deialdikoarekin bat ez datorren talde, kategoria eta espezialitatean.

Puntuak zenbatzeko lan egindako aldien batuketa egingo da, eta azken baturan ez da kontuan izango 30 egun naturaletik beherako zatirik.

Merezimendu-lehiaketa bidez egingo den enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan, emandako zerbitzuak behin baino ez dira baloratuko, eta ezin izango dira erabili eskala bereko prozesu desberdinetan, hain zuzen ere, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 24an hartutako Erabakiko II. eranskinean jasotako eskala desberdinetan (erabaki horren bidez onartu zen 2022ko Lan Eskaintza Publikoa administrazio eta zerbitzuetako langileentzat eta 2019, 2020 eta 2021eko LEPak aldatu ziren (2022ko maiatzaren 31ko EHAAn argitaratua, 104. zk.)); eta gauza bera kategoria bereko espezialitate desberdinetarako. Hautagaiak, beraz, zehaztu egin behar du zer aukeratzin duen oinarri orokorretan jasotakoari jarraituz.

Lehiaketa-oposizio bidezko ohiko prozesuan, emandako zerbitzuak behin baino ez dira baloratuko, eta ezin izango dira erabili eskala bereko prozesu desberdinetan, hain zuzen ere, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 24an hartutako Erabakiko II. eranskinean jasotako eskala desberdinetan (erabaki horren bidez onartu zen 2022ko Lan Eskaintza Publikoa administrazio eta zerbitzuetako langileentzat eta 2019, 2020 eta 2021eko LEPak aldatu ziren (2022ko maiatzaren 31ko EHAAn argitaratua, 104. zk.)); eta gauza bera kategoria bereko espezialitate desberdinetarako. Hautagaiak, beraz, zehaztu egin behar du zer aukeratzin duen oinarri orokorretan jasotakoari jarraituz.

**Merezimendu akademikoak:** gehienez, 2 puntu.

**1. Titulazio akademikoak:** Titulu akademikoei 1 puntu emango zaie gehienez, eskatutako lanpostuari dagokion sailkapen taldean sartzeko beharrezko tituluari izan ezik, modu honetara banatuta:

- Eskuratu nahi den lanpostuaren sailkapen taldean sartzeko eskatutako gainetik dagoen titulu bat edukitzea: 1 puntu titulazioko. Atal hau ez zaie ezarriko I eta A taldeei.
- Eskuratu nahi den lanpostuaren sailkapen taldean sartzeko eskatzen den beste titulazio bat edukitzea: 0,5 puntu titulazioko. Atal hau ez zaio ezarriko E taldeari.

Titulu bat baloratzen denean ez dira baloratuko hori lortzeko behar diren beheragoko tituluak.

Ez dira merezimendutzat baloratuko baldintzak betetzeko erabilitako titulazioak

**2. Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak:** gehienez 1 puntu, era honetara banatuta:

A) I/A eta II/B taldeak

- Europako Marko Bateratuko C2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

- Europako Marko Bateratuko C1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,75 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

B) III/C eta IV/D eta E taldeak


- Europako Marko Bateratuko C1 mailako edo maila goragoko frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,75 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko A2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.


Kontuan hartuko da UPV/EHUko errektoreak 2012ko martxoaren 8an emandako Erabakia, hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoa (Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko erabaki bidez eguneratu zena), edo erabaki horren ordezko araudia.

Puntuazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

**3. Hautaketa prozesu bat gainditu izana, bai lan kontratudun finko edo karrerako funtzionario izateko, hautatua izan gabe, bai aldi baterako enplegu publikorako lan poltsak eratzeko: gehienez 1 puntu honen arabera:**

- UPV/EHUko hautaketa prozesuak, deialdiko eskala bereko funtzionarioentzat eta talde, kategoria eta eskala bereko lan kontratudunentzat: 1 puntu.
- Beste unibertsitate batzuetako hautaketa prozesuak, deialdiko talde eta eskala bereko funtzionarioentzat eta pareko talde, kategoria eta eskalako lan kontratudunentzat: 0,5 puntu prozesuko.

  
CC-7-662



- Beste administrazio publikoetako hautaketa prozesuak, deialdiko eskalaren pareko funtzionarioentzat eta pareko talde, kategoria eta eskalako lan kontratudunentzat: 0,33 puntu prozesuko.

Merezimendu hau egiaztatzeko, funtzio publikoaren arloko organo eskudunaren egiaztagiria aurkeztu behar da zehaztuta deialdia noiz argitaratu zen, zein eskalatarako edo kategoria eta espezialitaterako izan zen eta lortutako nota. UPV/EHUren hautaketa prozesuetarako, alegatu egin beharko da merezimendua, baina ofizioz egiaztatuko da.

- 4. Eskariak aurkezteko epea bukatzean UPV/EHUko lan poltsetan egotea, deialdiko eskala berean edo kategoria eta espezialitate berean: 1 puntu.

## A.2.-Euskara

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeko 98.4 artikulua ezarriz, hautaketa prozesuan hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez denean, euskararen jakite maila merezimendutzat hartuko da. Baloraziorako, kontuan hartuko da deialdiko lanpostuetan nagusi den hizkuntza eskakizuna, eta era honetara puntuatuko da:

- Eskalan edo kategorian 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE edo goragokoa izateagatik: % 5
- Eskalan edo kategorian 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: % 5
  - 2. HE edo goragokoa izateagatik: % 10.
- Eskalan edo kategorian 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: % 5.
  - 2. HE izateagatik: % 10.
  - 3. HE edo goragokoa izateagatik: % 15.
- Eskalan edo kategorian 4. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: % 5.
  - 2. HE izateagatik: % 10.
  - 3. HE izateagatik: % 15.
  - 4. HE izateagatik: % 20.

2022ko maiatzaren 9an Euskalduntze Batzordeak egindako bileran onartutakoari jarraikiz, lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data hautaketa prozesuetarako deialdia egin ondoren gainditzen bada, deialdian zehaztutako baldintza eta betekizunen arabera beteko dira plazak.

## A.3.- Berdinketa dagoenean

Prozesua gainditutakoen artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

- 1) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazio lan esperientzian, deialdiko talde, eskala/kategoria eta espezialitate berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazio lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 4) Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.
- 5) Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuetako atalean.
- 6) Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.
- 7) Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.
- 8) Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez ofizialen atalean.
- 9) Berdinketa apurtu ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazio talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- 10) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta dauden artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

## B) Lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistema

Hautaketa prozesu bakoitzeko zehaztasunak (plazen izaera eta ezaugarriak, eduki beharreko titulazioa, hautaketa probaren nondik norakoak, oposizio faseko ariketa edo probak kalifikatzeko sistema, eta lehiaketa faseko merezimenduen balorazioa eta egiaztatzea), prozesu bakoitzaren baldintza zehaztetan zehaztuko dira.

**B.1.- Oposizio fasea:** Proba teoriko-praktiko bat egin beharko da.

Proba teoriko-praktikoan 20 puntu lortu ahal izango dira guztira, eta proba gainditzeko, 10 puntu beharko dira.

Proba test moduko ariketa bat izango da: galde kopuru zehatz bat izango du, galdera bakoitzerako lau erantzun emango dira aukeran, eta bakarra izango da zuzena. Galderak kasuan kasuko galdera sortakoak izango dira, eta lau (4) hilabete lehenago argitaratuko dira.

Erantzun okerrenetatik eta erantzun gabeko galderenetatik ez da punturik kenduko.



Gai zerrendan parte orokorra eta zehatza bereizita egongo dira eta prozesuetako oinarri zehatzetan argitaratuko da.

Galdera sortak gehienez izango duen galdera kopurua, gehienez zehaztuko den gai kopurua, probako galdera kopurua (erreserbakoak barne) eta probako denbora titulazio taldeen arabera izango da, era honetara banatuta:

- Barne promoziorako:

TALDEA	GALDERA SORTAREN GALDERA KOP.:	GAI KOP.	GALDERA KOP.	DENBORA
A	350	40	60 + 5	70 minutu
B	300	30	50 + 5	60 minutu
C	250	20	35 + 5	45 minutu
D	200	15	30 + 5	40 minutu

- Gainerako deialdietarako:

TALDEA	GALDERA SORTAREN GALDERA KOP.:	GAI KOP.	GALDERA KOP.	DENBORA
A	700	50	100+20	120 minutu
B	600	40	80+20	100 minutu
C	500	35	60+20	80 minutu
D	450	25	50+20	70 minutu
E	400	20	40+20	60 minutu

**B.2.- Lehiaketa fasea (oposizio fasearen % 45):** Lehiaketa faseko kalifikazioa lortzeko, gehienez ere 9 puntu, batu egin behar dira merezimenduetako puntu guztiak, honako baremoaren arabera:

Deialdi bakoitzean, merezimenduen baremoak atal hauek izango ditu:

- A) Merezimendu profesionalak
- B) Merezimendu akademikoak

Lehiaketa fasea ez da baztertzaila izango eta ez da kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Merezimenduak eskuratuta izan behar dira eskariak aurkezteko epea bukatzen den egunean, eta, oro har, ondorengo merezimenduak hartuko dira kontuan ondorengo baremoaren arabera:

**Merezimendu profesionalak barne promoziorako:**

- 1) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: Administrazio publikoetako antzinatasuna, eskabideak aurkezteko azken egunera artekoa: 9 puntu gehienez: 0,04 puntu zerbitzuan emandako hilabete oso bakoitzeko.

UPV/EHUk hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinatasuna baino ez da zenbatuko.

Puntuak zenbatzeko, lan egindako aldien batuketa egingo da, eta azken baturan ez da kontuan izango 30 egun naturaletik beherako zatirik.

Egindako zerbitzu aldia behin baino ez da baloratuko, hau da: ezin izango da berriro erabili beste eskala batzuetara sartzeko. Beraz, merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko ezartzen den epean, hautagaiak zehaztu egin beharko du zein eskalatan sartu nahi dituen zerbitzuak.

**Merezimendu profesionalak gainerako deialdietan:**

- 1) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak deialdi bakoitzerako eskariak aurkezteko azken egunera arte: gehienez ere 9 puntu, modu honetara banatua:

a) Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraikiz, UPV/EHUk emandako zerbitzuak, deialdiko eskala berean: 0,1 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko; gehienez, 9 puntu.

b) Beste unibertsitate publiko batzuetan emandako zerbitzuak, deialdiari dagokion pareko eskalan: 0,1 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko; gehienez 6 puntu.


c) Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak, deialdiari dagokion pareko eskalan: 0,1 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko; gehienez, 4,5 puntu.

Puntuak zenbatzeko, lan egindako aldien batuketa egingo da, eta azken baturan ez da kontuan izango 30 egun naturaletik beherako zatirik.

**Merezimendu akademikoak, barne promoziorako eta gainerako deialdietarako:**

- 1) **Titulazio akademikoak:** Titulu akademikoei 1,5 puntu emango zaie gehienez, eskatutako lanpostuari dagokion sailkapen taldean sartzeko beharrezko tituluari izan ezik, modu honetara banatuta

- Eskuratu nahi den postuaren sailkapen taldean sartzeko eskatutako gainetik dagoen titulu bat edukitzea: 1,5 puntu.
- Eskuratu nahi den sailkapen taldean sartzeko eskatzen den tituluz gain, beste bat edukitzea: 0,75 puntu.

  
CG-7-652



Titulu bat baloratzen denean ez dira baloratuko hori lortzeko behar diren beheragoko tituluak.

2) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Gehienez ere 1,50 puntu emango da, betiere baremo honen arabera:

A) A eta B taldeak

- Europako Marko Bateratuko C1 mailako edo maila goragoko frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

B) C, D eta E taldeak

- Europako Marko Bateratuko B2 mailako edo maila goragoko frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko A2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Kontuan hartuko da UPV/EHUko errektoreak 2012ko martxoaren 8an emandako Erabakia, hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoa (Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko erabaki bidez eguneratu zena), edo erabaki horren ordezko araudia.

Puntuazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

### B.3.-Euskara

Kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen dutenek gai kalifikazioa jasoko dute, baldin eta lanpostuak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna badu.

Derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ez duten lanpostuetarako, honako hau izango da puntuazioen banaketa, eta ezin izango da lortu tarteko puntuaziorik:

- Eskalan 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE edo goragokoa izateagatik: % 5
- Eskalan 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: % 5
  - 2. HE edo goragokoa izateagatik: % 10.

- Eskalan 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: % 5.
  - 2. HE izateagatik: % 10.
  - 3. HE edo goragokoa izateagatik: % 15.
- Eskalan 4. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:
  - 1. HE izateagatik: % 5.
  - 2. HE izateagatik: % 10.
  - 3. HE izateagatik: % 15.
  - 4. HE izateagatik: % 20.

2022ko maiatzaren 9an Euskalduntze Batzordeak egindako bileran onartutakoari jarraikiz, lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data hautaketa prozesuetarako deialdia egin ondoren gainditzen bada, deialdian zehaztutako baldintza eta betekizunen arabera beteko dira plazak.

#### B.4.- Berdinketa dagoenean


##### B.4.1.- Barne promoziorako

Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

- 1) Puntuaziorik handiena UPV/EHUko esperientzian, funtzionarioen edozein taldean, karrerako funtzionario legez zein bitarteko funtzionario legez, edo edozein kategoria profesionalean, lan kontratudun finko legez zein aldi baterako lan kontratudun legez; egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.
- 4) Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea
- 6) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

##### B.4.2.- Gainerako deialdiak

Berdinketa gertatuz gero, hurrenkera irizpide hauen arabera zehaztuko da:

  
CG-7-2021

  
UGP

- 1) Puntuaziorik handiena UPV/EHUko lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 4) Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.
- 5) Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.
- 6) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea
- 7) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

#### IV) Hautaketa prozesuetan lanpostuak esleitzeko prozedura

Hautaketa prozesuak eta deialdiak 2024ko abenduaren 31 baino lehen bukatu behar dira.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurarako deitutako pertsonak (estabilizazioko ezohiko prozesuetakoek zein ohiko prozesuetakoek) zerrenda bakarra osatuko dute, beren lehentasunen arabera hurrenkerarekin, kontuan izanda zein hizkuntza eskakizun eskatzen den eta zein baldintza berezi dituen lanpostuak. Zerrendan deialdi bateko zein besteko lanpostuak zehaztu daitezke.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsona bi deialdietako bakar batekoa bada, kasuan kasuko deialdiko lanpostuak baino ezin izango ditu eskatu, hala dagokion eskalan edo kategorian eta espezialitatean.

Lanpostuak esleitu ondoren, beharrezkoa da zenbait neurri hartzea eta irizpide zehatzak ezartzea, bai beste lanpostu batzuetara joan beharko diren langileei begira eta bai lan poltsetan lanerako moduan dauden pertsonen begira, sindikatuen eta administrazioaren nahia baita pertsona horien eskubideak, interesak eta itxaropenak ahalik eta ondoen zaintzea, betiere gardentasun eta objektibotasunik handiena bermaturik.

#### A.- Bitarteko edo aldi baterako langileek lanean jarraitzea

CC-7-L6V

Bitarteko edo aldi baterako langileak beren plazetan geratuko dira baldin eta hautaketa prozesua ebaztean beren izendapena edo kontratua eragin zuen premiak bere horretan badirau. Aldaketei dagokienez, aukera hauek daude:

- Aldaketarik ez, langileak betetzen duen plaza esleitu barik geratu bada.
- Ordezkotza egiteko izendapena edo kontratua aldatzea eta plaza hutserako izendapena edo kontratua egitea ordezkatzen zegoen titularrak beste plaza bat lortu badu.
- Plaza hutseko izendapena edo kontratua aldatzea eta ordezkotza egiteko izendapena edo kontratua egitea, plaza esleitua izan bada baina esleipendunak ez badu plaza beteko.

### B.- Egonkortasun klausula ezartzea

Hautaketa prozesua lehiaketa-oposizioa bada, deialdia kontuan hartuko zaie Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko Legeko laugarren xedapen gehigarrian babespean daudenei, betiere, eskaintzen diren lanpostuak egonkortasun aitorpenean jasotako eskalakoak badira.

Egonkortasun klausularen bermea dutenek lehentasuna daukate atxikipenez dagokien talde, eskala, kategoria profesional eta espezialitateko lan poltsetan, eta lan poltsetako gainontzeko kideen aurretik egongo dira; beraz, hautaketa prozesua gainditzen ez badute, A atalean zehaztutako esleipenak egin eta izendapenak eta kontratuak arautu ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak atxikiko zaizkie baldin eta lanpostua betetzeko baldintzak betetzen badituzte, eta ordainsariak legez zehaztutakoari egokituko zaizkie.

Ez bada lanpostu hutsik sortzen, langile horiek beren eskalako zerbitzuak betetzen jarraituko dute beren erreferentziako campusean sortzen diren premia bereziak betetzeko. Deialdi publiko bidez aukeratuko dituzte. Premia bereziak sindikatuekin negoziatuta zehaztuko dira.

### C.- Lan poltsak

Hautaketa prozesua merezimenduen bidezkoa bada, ez da lan poltsarik eratuko.

Hautaketa prozesua lehiaketa-oposizioa denean, lan poltsa eratzeko oinarri izango da 2006ko azaroaren 30eko Akordioa eta 2017ko uztailaren 18ko Akordioa, lan poltsak eratu eta gestionatzeari buruzkoak.

Kontuan izanik aipatutako xedapenak, lehiaketa-oposizio bidez egingo diren lan eskaintza publikoen eraginpean dauden funtzionarioen poltsak, lehentasun irizpide hauen arabera ordenatuko dira:

- 1) Lehenik eta behin, 2006ko azaroaren 30eko Akordioaren babespean egonkortasuna daukatena, egun lan poltsan daukaten hurrenkera berean, betiere, kasuan kasuko LEPra aurkeztu badira.

Pertsona hauek EE kodea izango dute: egonkortasuna/estabilidad.

- 2) Ondoren, lehentasuna daukatena, hau da: egun lan poltsan egonik deialdia baino lehen zerbitzuak eman dituztenak, eta, betiere, LEPra

*Handia 62 berriz*  
*CLT-LON* *OGT*

aurkeztu badira eta azterketa egin eta entregatu badute. Pertsona hauek kasuan kasuko lan poltsan egun daukaten hurrenkera bera izango dute.

Pertsona hauek LP kodea izango dute: lehentasuna/preferencia

- 3) Ondoren, LEPa gaintitu arren plazarik lortu ez dutenak. Pertsona hauen hurrenkera zehazteko irizpideak hauek izango dira: prozesuan lortutako puntuak gehi eskala berean egindako lana eskariak aurkezteko azken egunaren biharamunean hasi eta prozedura bukatu den egunera arte: 0,06 puntu lan egindako hilabete osoko. Prozeduraren azken eguntzat hartuko da prozesua gaintitu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzen den eguna.

Atal honetan, kasuan kasuko hautaketa prozesuko oposizio fasean gutxien dela 17,5 puntu lortu dutenak baino ez dira sartuko lan poltsan.

Pertsona hauek EO kodea izango dute: eskaintza/oferta

- 4) Ondoren, egun lan poltsan dauden gainontzekoak, deialdiaren ondoren zerbitzurik bete badute eta aurreko ataletako batean ere ez badaude. Egunduten hurrenkera erlatiboan jarraituko dute.

Pertsona hauek GP kodea izango dute: gerokoak/posteriores

LEParen eraginik ez daukaten lan poltsak ez dira aldatuko, egungo egoera berean jarraituko dute.

Bete gabe geratu diren premiak betetzeko lan poltsetako kideei dei egiten zaienean, zorrotz eutsiko zaio 2017ko uztailaren 18ko Akordioari, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoari edo hori ordezkatu duen akordioari. Lan poltsetako pertsonen behar adinako aurrerapenez deituko zaie, hortik sor daitezkeen mugimendu guztiek data berean izan dezaten eragina. Lehendabizi, lanpostu "hutsak" eskainiko dira, eta gero gainerako ordezkapenak eta bestelakoak.

#### V) Hautagaien zerrenda osagarria eta lanpostuen esleipen osagarriak

Bat etorrira urriaren 30eko 5/2015 legegintzako errege dekretuak 61.8 artikuluan zehaztutakoarekin eta deitutako plaza huts guztiak bete egiten direla bermatzeko, deialdi zehaztutako jasota egon behar da deialdia egin duen organoak eskatu egin behar diola hautaketa organoari hautagaien zerrenda osagarri bat, proposatutako hautagaienaz gain —karrerako funtzionarioak edo lan kontratudun finkoak izendatzeko—; izan ere, kontuan hartuta estabilizazioko prozesua berezia dela eta parte hartzea oso handia izango dela, saihestu egin nahi da hautatutako hautagaiek izendapenaren aurretik edo lanpostua jabetzan hartu aurretik lanpostuari uko egin diotelako lanpostuak hutsik geratzea.

Horrez gain, kasu batzuetan plaza hutsak betetzeko esleipen osagarriak egingo dira. Esleipen hauek behin baino ez dira egingo eta, egin ere, kasu hauetan egingo dira:

- a) Lanpostua jabetzan hartzean edo lan kontratua sinatzean lanpostua gordeta izateko eskubiderik ez daukan eszedentzia eskatuz gero, hutsik geratzen den lanpostua esleituko da.
- b) Karrerako funtzionarioari beste eskala bateko lanpostua esleitzen zaionean edo lanpostuko titularra den lan kontradun finkoari beste kategoría eta espezialitate bateko lanpostua esleitzen zaioenean, titular izanik hutsik utzi dituzten lanpostuak esleituko dira.
- c) Plaza huts berririk sortu bada, deialdian zehaztutako plaza kopuruari ehuneko hamar bat gehitu ahal izango zaio esleipenetan.

Aurreko letretan zehaztutako lanpostuen esleipen berriak, prozedurari jarraituz eta ondoren irizpideei jarraituz egingo dira:

- a) Lanpostuak betetzeko sistema lehiaketa izatea.
- b) Lanpostua ezin izango da atera baldin eta karrerako funtzionarioak betetzen badu behin-behineko atxikipenean edo zerbitzu betekizunetan osasun arazoengatik
- c) Ez da lanpostua esleituko, baldin eta lanpostuen zerrendaren arabera lanpostua amortizatu edo desagertu egingo bada.

Plaza huts hauek ohiko prozesuan sartu eta esleituko dira, lanpostuen zerrendan zehaztuta daukaten eskala edo kategoría eta espezialitate berean.


Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetara deituko den pertsona kopurua epaimahaiak zehaztutako kopuru bera edo txikiagoa izango da, betiere, hurrenkerari jarraituz eta kontuan hartuta hizkuntza eskakizuna. Kopuru horrek bermatu egin behar du aukeran dauden plaza guztiak esleitu egingo direla.


## VI) Campusa aldatzeko prozedura berezia

Egiaztatzen baldin bada LEPko esleipenen ondorioz karrerako funtzionarioak edo lan kontratudun finkoak bizilekuari ez dagokion campusetako batera joan behar izan direla nahitaez, deialdia egingo da, lan poltsak erabili aurretik, lanpostuak behin-behinekoz betetzeko, baldin eta oinarrizko mailakoak izan arren kasuan kasuko araudiari jarraikiz gainontzeko baldintza guztiak betetzen badituzte horrela eskaini eta bete ahal izateko. Lanpostuok zerbitzu betekizunetan edo eginkizunak esleituta beteko dira.

Horrela, bada, lanpostuen esleipena egin ondoren, epea irekiko da derrigortuta campusa aldatu behar izan dutenek horren berri eman dezaten







Mota horretako deialdian behin baino ezin izango da hartu parte, funtzionarioentzako hurrengo leku aldaketa lehiaketa edo lan kontratudunentzako lanpostu hutsak betetzeko eta promozio profesionalerako hurrengo prozesua deitu aurretik. Deialdi berezi horretan langileak nahi duen campusera aldatzeko aukera ematen duen eskala edo kategoría profesional bereko lanposturik eskaini bada eta eskaririk egin ez bada, deialdian parte hartzeko aukera agortu egin dela ulertuko da.

  
CUT-LKN





Leioa, 2022ko ekainaren 30a

 Irakaskuntza Komisioak UPV/EHU	 CGT/LKN CGT UPV/EHU	ELA 
FEP-USO	 FEP-USO Euzko Errentza Publikoa	LAB
	 STELLA Euzko Errentza Publikoa	
	UPV/EHU ADMINISTRAZIOA 